

**ERANSKINA: AINTZAT HARTU BEHARREKO NEURRIAK, LABURBILDUZ****(2022/01/04)**

Uneoro jarraitu behar dugu higie-ne eta prebentzio-neurriak zorrozten, Gabonen oporren ostean, bereziki, egoera epidemiologikoa kontuan hartuta. Hona hemen, berriak ez badira ere, aintzat hartzeko neurri esanguratsuak:

**SUKARRA NEURTU**


Irakasleei eta familiei jakinarazi behar zaie, ikastetxera joan aurretik, **etxean bertan tenperatura hartzea** gomendatzen dela, eta **ezin direla joan sukarra dutenak (>37º) edo COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasleak, irakasleak eta bestelako profesionalak.**

**SARBIDE MUGATUA**

Eskola-**instalazioetarako sarbidea mugatu** eta kontrolatu beharko da, ikasleek ikastetxeko irakasleekin eta irakasle ez diren pertsonekin kontakturik izan ez dezaten, ezinbestekoak diren kasuetan izan ezik (mantenu lanak, matrikulazioa, eta abar).

**AIREZTAPENA**

**Airearen kalitatea** etengabe bermatzeko zentroko espazio guztietan, aireztapen gurutzatua eta banatua da aukerarik onena, leihoak eta atea irekiz. **Aireztapen egokia bermatzen duten espazioak** erabili ahal izango dira **BAKARRIK**.

**DISTANTZIAK**

Protokoloan adierazitako **pertsonen arteko segurtasun-distantzia** zorrotz errespetatu behar da **une eta leku guztietan**.

**BURBUILAK**

**Talde-egonkorak ezin dira haien artean nahastu** eskola orduetan, eskolaz kanpoko jardueretan barne. Azken hauek **eten egingo dira** talde-egonkor desberdinetako ikasleen nahasketa badakarte.

**HAMAIKETAKOA**

Ahal dela, **aire zabaleko espazioetan bakarrik** jan behar da hamaiketakoa, bai ikasleek bai irakasleek, segurtasun- distantziari eutsiz, eta maskara berehala jarriz berriro.